DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna
Salud Ambiental y Sostenibilidad
Mandasko Dukearen pasealekua, 66 - Cristina-enea | Tel. 010 - 943481000 | ingurumena@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

# Correr en la Semana Europea de Prevención de Residuos

El plástico de la camiseta, el sobre del dorsal, la prenda con la que se calientan o se protegen de la lluvia en la salida, la bolsa de comida de la meta, un botellín de plástico por avituallamiento... Multiplicado por 8 avituallamientos y por 8.000 participantes, el reguero de residuos que deja atrás una carrera es considerable.

O deberíamos decir que lo era hasta ahora, porque en el maratón que se celebrará este domingo, la imagen va a ser otra.

En efecto, el departamento de Salud y Medio Ambiente y el Patronato de Deportes del Ayuntamiento de San Sebastián, está trabajado en los últimos meses con las entidades que se dedican a organizar eventos deportivos en la ciudad para lograr que estos sean más sostenibles, centrándose, por el momento, en el ámbito de los residuos.

Principalmente, se ha trabajado con la empresa Fly Group y con la asociación Amara Kirol Elkartea, dos entidades muy diferentes -empresa profesional la primera, asociación de barrio la segunda- con las que se han acordado una serie de medidas de prevención de residuos para aplicarlas ya en las ediciones de las carreras de este año.

La empresa Fly Group organiza, entre otras, la carrera 15K y el maratón Zurich. La 15K se celebró en octubre, y sirvió como prueba piloto para implantar medidas novedosas como servir en los avituallamientos agua de red en vasos compostables que las personas corredoras debían depositar directamente en los contenedores marrones colocados al efecto a pocos metros de los avituallamientos.

“Nuestra prioridad es organizar una gran carrera –declara Mikel Huarte, de la empresa Fly Group– pero nos hemos dado cuenta de que estos cambios no implican ninguna incomodidad para las personas corredoras, mejoran su satisfacción y también la imagen del evento. Nuestras carreras eran solidarias desde hace años, ahora queremos que sean también sostenibles.” 10740n XVII

En la edición de la 15K se evitaron respecto a ediciones anteriores 3.500 fundas de plástico de las camisetas y la misma cantidad de botellines de agua. Además, se colocaron contenedores para la recogida selectiva de los vasos compostables, de los botellines de plástico, de la fruta que se da en meta, etc. ”La buena acogida por parte de las personas participantes y su colaboración –continúa Mikel Huarte– nos han animado a amplificar estas medidas de cara a la maratón, en la que vamos a repartir agua de red en la mitad de los avituallamientos de la carrera”.

La prueba piloto realizada con la 15K le ha servido también al Ayuntamiento para comprobar que es posible prevenir la generación de residuos y mejorar la recogida selectiva de los que se producen en estos eventos multitudinarios y, de cara a los próximos años, algunas de estas medidas, como la introducción progresiva del agua de red en los avituallamientos, serán obligatorias en las carreras que se celebren en la ciudad.

Son medidas que ya se llevan a cabo en grandes carreras que se celebran en otras ciudades, como en las maratones de Londres y de Berlín, donde se está experimentando con diferentes posibilidades como servir el agua en membranas comestibles o en vasos reutilizables, o hacer que las personas participantes lleven su propia agua. En las carreras de montaña, desde hace tiempo se marca con el número de cada participante la comida y bebida que lleva cada cual, y abandonar el envase durante el recorrido puede suponer una penalización en tiempo o incluso la descalificación de esa persona.

Y con el fin de animar a otros eventos deportivos a aplicar estas u otras medidas de mejora, el departamento de Medio Ambiente ha elaborado un vídeo sobre esta iniciativa.

El Concejal de Salud y Medio Ambiente, Enrique Ramos, agradece la buena disposición que para participar en este proyecto han mostrado la empresa Fly Group y la asociación Amara Kirol Elkartea, que también implantará medidas de reducción de residuos en la San Silvestre de este año. Asimismo, se reconoce la labor realizada por la Federación de Atletismo de Gipuzkoa y por todas las personas voluntarias que colaboraron en la 15K y que de nuevo lo harán en la maratón del domingo 24, un magnífico colofón a la Semana Europea de Prevención de Residuos que se celebra estos días.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna
Salud Ambiental y Sostenibilidad

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 - Cristina-enea | Tel. 010 - 943481000 | ingurumena@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

## Korrika, Europako Hondakinen Prebentzio Astean.

Elastikoaren bilgarri plastikoa, dortsalaren gutun-azala, irteeran bero mantentzeko zein euritik babesteko jantzia, helmugako janari-poltsa, anoa-postu bakoitzeko plastikozko botilatxo bat... 8 anoa-punturekin eta 8.000 parte-hartzailerekin biderkatuz gero, lasterketa batek atzean uzten duen hondakin-arrastoa handia da.

Edo handia zela esan beharko genuke, igande honetan izango den maratoiaren irudia bestelakoa izatea espero baita.

Izan ere, Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Saila eta Kirol Patronatua lanean aritu dira, azken hilabetetan, hirian kirol ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeekin, ekitaldi horiek jasangarriagoak izan daitezen. Oraingoz, hondakinen arloan jarri da arreta.

Batez ere, Fly Group enpresarekin eta Amara Kirol Elkartearekin lan egin da; bi erakundeak oso desberdinak dira -enpresa profesionala, lehena, auzo-elkartea, bigarrena-. Biekin elkarlanean, hondakinak prebenitzeko neurri batzuk adostu dira aurtengo lasterketen edizioetan ezartzeko.

Fly Group enpresak, besteak beste, 15K lasterketa eta Zurich maratoia antolatzen ditu. 15K urrian izan zen, eta proba pilotu gisa erabili zen, hainbat neurri berritzaileren bideragarritasuna ikusteko, hala nola, sareko uraren banaketa. Hain zuzen ere, anoa-puntu batean, ur botilak eman beharrean, oraingoan sareko ura banatu zen edalontzi konpostagarrietan, eta korrikalariek zuzenean anoa-puntutik metro batzuetara jarri ziren edukiontzi marroietara bota behar zituzten.

“Gure lehentasuna lasterketa on bat antolatzea da –aitortzen du Mikel Huartek, Fly Group enpresakoak– baina konturatu gara aldaketa horiek korrikalariei ez dietela inolako eragozpenik sortzen, aldiz, haien gogobetetasuna zein lasterketaren irudia hobetzen dituzte. Gure lasterketak solidarioak ziren aspalditik, orain nahi dugu jasangarriak ere izatea”.

Aurtengo 15K-ren edizioa,, aurreko edizioekiko 3,500 elastikoen plastikozko zorro eta beste hainbeste ur-botilatxo saihestu egin dira. Gainera, edukiontziak jarri ziren edalontzi konpostagarriak, plastikozko botilatxoak, helmugan ematen den fruta, etab. gaika jaso ahal izateko. “Parte-hartzaileen harrera onak ea eta haien lankidetzak—jarraitzen du Mikel Huartek— maratoiari begira neurri horiek zabaltzera animatu gaituzte, eta, hala, oraingoan ano-puntuen erdietan sareko ura banatzeko asmoa dugu”.

15K-rekin egindako proba pilotuak balio izan dio Udalari ere ikusteko, ekitaldi jendetsuetan ere, hondakinak prebenitu daitezkeela eta sortzen diren hondakinen gaikako bilketa hobetu daitekeela. Horrenbestez, datozen urtetan, horietako neurri batzuk nahitaezkoak izango dira hirian egiten diren lasterketetan. Adibidez, ano-puntuetan, modu mailakatu batean, sareko ura erabiltzen joan beharko da.

Neurri hauek jada beste hiri batzuetan egiten diren lasterketa handietan ezartzen ari dira, hala nola, Londreseko eta Berlingo maratoietan, non hainbat aukerarekin esperimentatzen ari diren: ura jan daitezkeen mintzetan edo berriz erabiltzeko edalontzietan zerbitzatzea, edo parte-hartzaileak beren ura eramanaraztea. Mendiko lasterketetan, aspaldidanik, parte-hartzaile bakoitzak beren dortsal-zenbakiarekin markatu behar du eramaten duen janaria eta edaria, eta ibilbidean zehar ontzia botatzeak denbora-penalizazioa edo deskalifikazioa ekar ditzake.

Ingurumen Sailak, beste kirol-ekitaldiak animatzeko hobetzeko neurri hauek edo beste batzuk abian jartzera, ekimenari buruzko bideo bat egin du.

Bestalde, Osasun eta Ingurumen zinegotzia den Enrique Ramosek eskerrak eman nahi izan dizkio proiektu Fly Group enpresa eta Amara Kirol Elkarteari, proiektu honetan parte hartzeko erakutsi duten prestutasunagatik. Amara Kirol Elkarteak, aurtengo San Silvestre lasterketan, hondakinak gutxitzeko hainbat neurri jarriko ditu martxan. Halaber, Enrique Ramosek azpimarratu nahi izan du Gipuzkoako Atletismo Federazioaren eta 15K-n borondatez lanean ibilitako guztien lana, hala nola, igande honetan maratoian laguntzen ariko direnen lana. Izan ere, igandeko maratoi jasangarriagoa Europako Hondakinen Prebentzio Astea bukatzeko modu ezin hobea izango da.